

Fake News-en txapeldunak sorgin-ehizan



Asier Blas

EHU-KO IRAKASLEA
@AxiBM

Mendebaldeak *berri faltsuen* aurkako gerra deklaratu du. Orain arte, gezur mediatikoak existitu izan ez balira bezala, post-egiaz hitz egiten dute nahi beste berri faltsu sortu edota hedatu dituzten NATOk estatuek, Gobernu Kanpoko Erakundeek (GKE) eta *mass-media* nagusiek. Adibide ugari daude, baina agian famatuena da Irakeko lehenengo gerra justifikatzeko balio izan zuen antzezlan. Neskatala batek AEBetako Kongresuaren aurrean kontatu zuen nola soldadu irakiarrek Kuwaiteko ospitale batean sartu eta umeak inkubagailuetatik atera zituzten. Amnistia Internazionalak hildako kopurua jarri zuen lotsagabe: 312 ume. Kongresuko kideak eta iritzi publiko iparramerikarra hunkituta zegoen. Gertakaria Nazio Batuen Erakundera iritsi eta honek baimena eman zuen Irak erasotzeko.

Egun, frogatuta dago dena muntaia izan zela AEBetako esku-hartze militarra bultzatzeko. Soldadu irakiarrek ez zuten inkubagailurik lapurtu; umeen gorpurik ez zegoen eta testigantza faltsua zen. Neskatala Kuwaiteko AEBetako enbaxadorearen alaba zen. Kuwaitek esku-hartze militarra lortzeko 10,7 milioi dolar ordaindu zizkion AEBetako Harreman Publikoetako enpresa handienari.

Esku-hartze militar bat bultzatzeko, lehenik, krisi bat muntatu edota elikatzen da protagonismo mediatiko guztia emateko; ondoren, gobernuak, GKEek eta hedabideek etsaiaren liderra demonizatu egiten dute Hitlerren pare jarritz; hirugarrenik, demonizazioa etsai guztiengana zabaltzen da; eta azkenik, bihozgabekeriak salatzen dira. Gogoratzen Alepoko neskatila hartaz? Akatsik gabe ingelesez twit-teatu eta gero, ingelesez nekez hitz egiten zuena? Eta Alepoko mutil bonbardatua? Aitak esplikatatu du NATOk

Esku-hartze militar bat bultzatzeko, lehenik, krisi bat muntatu edota elikatzen da protagonismo mediatiko guztia emateko; ondoren, gobernuak, GKEek eta hedabideek etsaiaren liderra demonizatu egiten dute Hitlerren pare jarritz; hirugarrenik, demonizazioa etsai guztiengana zabaltzen da; eta azkenik, bihozgabekeriak salatzen dira

aliatuak diren Al Nusra Fronteko (Al Qaedako) propaganda operazio baterako erabilia izan zela bere semea. Siriako esku-hartze inperialistan erabili diren manipulazio eta gezurren zerrenda luzea da, baina Kuwaiteko inkubagailuek bezala bere funtzioa bete zuten momentu zehatz batean. Libiakoeke bete zuten bezala, nahiz eta bost urte beranduago Erresuma Batuko Komunuen Ganberako Kanpo

Harremanetarako Batzordeak onartu zituen manipulazioak.

Zergatik orain berri faltsuengatik ardura? Mendebaldeak bere ikuskera komunikatibo dominantea eta gezurren produktzioa mehatxatua ikusten delako, bereziki sarean egia azaleratzeko aukera gehiago daudelako. Horregatik, sare sozialek, hedabideek, GKEek, Europar Batasunak eta NATOk aspaldi jarri dute martxan sorgin-ehiza Mendebaldeko gezurrak sarean salatzen dituzten aurka. (Des)informazioaren monopolioa nahi dute biktimak erasotzaile bilakatzeko eta erasotzaileak biktima bihurtzeko.

Fake news irrigarrietakoa izan da ustezko errusiar esku-hartzea AEBetako hauteskundeetan. Edward Snowden-ek salatu eta frogatu zuen bezala, mundu guztia zelatatzen duen herrialdean. Hedabideek hilabeteak daramatzate errusiar mamua astintzen inolako froga objektiborik gabe eta berri faltsuak zabaltzen. Tragikomediak gurean izan du inpaktua ere bai, Herbehereetako edo Frantziako hauteskundeetan errusiarrek esku hartuko zutela iragarri zen, frogarik gabe noski. Bitartean, frogak daudenean hedabideek beste alde batera begiratzen dute. Hackeatutako emailek frogatu dute Bernie Sandersen aurka tranpak egin zirela, AEBetako hauteskunde prozesua manipulatu. Wikileaks-ek sarean jarri ditu 2012ko hauteskunde frantsesak espiatzeko CIAk emaniko hiru agindu. Ez da ezer berria, azken batean CNNko produktore bati kamera ezkutuaekin harrapatu berri dioten grabazioan esan duen bezala, AEBak betidanik dabil mundu osoan zehar esku-hartzen hauteskundeetan. Interesgarriagoak dira, berriz, produktoreak dioena errusiar ustezko esku-hartzeari buruz, zuzenean dio ez dagoela inolako frogarik eta egongo balitz dagoeneko filtratuta egongo litzatekeela. ■